

ARIKETAK

1 TESTUA OSATU

Etxeko senide bat ondoezik jarri zaizula eta, autoa hartu eta ospitalera eraman duzu laster batean. Ibilbidean, ez duzu semaforo bat errespetatu, presaren presaz, eta une hartan trafikorik ez zebilelako. Ertzainek trafikoko salaketa-agiria egin dizute.

Bete itzazu alegazio-idazkiaren *alegazioak* eta *froga-agiria* izeneko zatiak, kontuan izanda baduzula ospitaleko sarrera orria, non agertzen baita zein ordutan iritsi zinen.

ALEGAZIOAK

Lehena.-

Bigarrena.-

FROGA-AGIRIAK

2 ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU, EUSKALTZAINDIAK EMANDAKO ARAUAK ETA GOMENDIOAK KONTUAN HARTUTA

- a) Industria arloan **europarrekin** ditugun harremanak oso onak dira.
b) Industria arloan **europarrekin** ditugun harremanak oso onak dira.
- a) **Europako Batasunak** esandakoaren arabera, arrantzaleek martxoan jasoko dituzte dirulaguntzak.
b) **Europar Batasunak** esandakoaren arabera, arrantzaleek martxoan jasoko dituzte dirulaguntzak.
- a) Zenbait ikasle gazte **Ameriketara** joan dira lan bila.
b) Zenbait ikasle gazte **Amerikara** joan dira lan bila.
- a) Osaba **amerikarra** etorri zenean ezagutu ere ez genuen egin.
b) Osaba **amerikanoa** etorri zenean ezagutu ere ez genuen egin.
- a) Eskola gehienetan **ingelera** ikasten dute umeez eta ez **frantsesera**.
b) Eskola gehienetan **ingelera** ikasten dute umeez eta ez **frantsesa**.
c) Eskola gehienetan **ingeleza** ikasten dute umeez eta ez **frantsesa**.

A R I K E T A K

6. a) Ez dizut ezer ere ulertzen; zer ari zara, **txineraz**?
b) Ez dizut ezer ere ulertzen; zer ari zara, **txinoz**?
7. a) **Gaztelera**z egindako adierazpenak itzuli egin zituzten.
b) **Gaztelania**z egindako adierazpenak itzuli egin zituzten.
c) **Espainiera**z egindako adierazpenak itzuli egin zituzten.
8. a) Orduan **arabeek** onartu zuten erlijio berria elementu bateratzailea izan zen.
b) Orduan **arabearrek** onartu zuten erlijio berria elementu bateratzailea izan zen.
c) Orduan **arabiarrek** onartu zuten erlijio berria elementu bateratzailea izan zen.
9. a) Jaiotzez soraluzearra bada ere, bihotzez **arabarra** da.
b) Jaiotzez soraluzearra bada ere, bihotzez **arabatarra** da.
10. a) Aita **naparra** izanik, batez ere **naparreraz** mintzatzen zaio, baina euskara estandarren eragin handia du.
b) Aita **napartarra** izanik, batez ere **naparreraz** mintzatzen zaio, baina euskara estandarren eragin handia du.
c) Aita **nafartarra** izanik, batez ere **naparreraz** mintzatzen zaio, baina euskara estandarren eragin handia du.
d) Aita **nafarra** izanik, batez ere **naparreraz** mintzatzen zaio, baina euskara estandarren eragin handia du.
11. a) Dantza hauek tipikoak dira **Behenafarroan** eta Luzaiden.
b) Dantza hauek tipikoak dira **Nafarroa Beherean** eta Luzaiden.
c) Dantza hauek tipikoak dira **Benaparran** eta Luzaiden.
d) Dantza hauek tipikoak dira **Benabarran** eta Luzaiden.
12. a) Galizian **galiziera**, Hego Euskal Herrian **euskara** eta Herralde Katalanetan **katalana** hizkuntza ofizialak dira.
b) Galizian **galiziera**, Hego Euskal Herrian **euskara** eta Herralde Katalanetan **katalanera** hizkuntza ofizialak dira.
c) Galizian **galiziera**, Hego Euskal Herrian **euskera** eta Herralde Katalanetan **katalana** hizkuntza ofizialak dira.
13. a) **Valentzian** katalanari ofizialki **balentziera** deritzo.
b) **Valentzian** katalanari ofizialki **valentziera** deritzo.
c) **Balentzian** katalanari ofizialki **balentziera** deritzo.
14. a) **Dinamarkako** talde politiko gehienak ados jarri dira: **dinamarkarrek** ezin izango dute autoa erabili ordu jakinetan.
b) **Danimarkako** talde politiko gehienak ados jarri dira: **daniarrek** ezin izango dute autoa erabili ordu jakinetan.
c) **Danimarkako** talde politiko gehienak ados jarri dira: **danimarkarrek** ezin izango dute autoa erabili ordu jakinetan.
15. a) Aitorren aita **alemaniarra** da, baina berak ez du **alemanez** hitz egiten.
b) Aitorren aita **alemaniarra** da, baina berak ez du **alemanieraz** hitz egiten.
c) Aitorren aita **alemana** da, baina berak ez du **alemanez** hitz egiten.



HIZTEGI BATUA

Euskaltzaindia hasia da Hiztegi Batua-ren bigarren orrazketa egiten. Hona hemen sarrera berrien gaineko hainbat ariketa:

1. a) Batetik bestera ibiltzea atsegina izan daiteke, horretara jarri edo **ohituratzen** bazara.
b) Batetik bestera ibiltzea atsegina izan daiteke, horretara jarri edo **ohitzen** bazara.
2. a) Neguko hotzak iristen direnean, **marraskiloak** oskol barruan gordeta geratu ohi dira.
b) Neguko hotzak iristen direnean, **barraskiloak** oskol barruan gordeta geratu ohi dira.
3. a) Europa aldeko sindikatuek **erretiroa** 60 urterekin izatea eskatzen dute orain.
b) Europa aldeko sindikatuek **jubilazioa** 60 urterekin izatea eskatzen dute orain.

A R I K E T A K

4. a) Telefonoa hartu eta zenbakia markatu zuen: —Polizia? —Bai, hemen **komisaldegia**.
b) Telefonoa hartu eta zenbakia markatu zuen: —Polizia? —Bai, hemen **komisaria**.
c) Telefonoa hartu eta zenbakia markatu zuen: —Polizia? —Bai, hemen **polizia etxea**.
5. a) Gabardina bustiaren hotza **somatu** zuen bizkarrean.
b) Gabardina bustiaren hotza **sumatu** zuen bizkarrean.
6. a) Oihartzun handia izan zuen McCarthy **senadorearen** politika antikomunistak.
b) Oihartzun handia izan zuen McCarthy **senatorearen** politika antikomunistak.
c) Oihartzun handia izan zuen McCarthy **senatariaren** politika antikomunistak.
7. a) Ene! Ehun eurokoa! Neurea izango da! —esan eta segituan makurtu egin zen, **billetea** jasotzeko.
b) Ene! Ehun eurokoa! Neurea izango da! —esan eta segituan makurtu egin zen, **billetea** jasotzeko.
8. a) Etxean hainbat denbora gaixorik eduki badugu ere, azkenean Donostiako Arantzazuko Amaren **erietxera** ekarri behar izan dugu.
b) Etxean hainbat denbora gaixorik eduki badugu ere, azkenean Donostiako Arantzazuko Amaren **erietxera** ekarri behar izan dugu.
9. a) **Inbutua** zertarako behar dugun? Gizona! Ardoa ontzi handitik atera eta botiletan sartzeko!
b) **Enbutua** zertarako behar dugun? Gizona! Ardoa ontzi handitik atera eta botiletan sartzeko!
10. a) Agirre'tar Nikola hau, "Metxa" izenobez, Bizkaia itsasontziko konbaterako lemazain izana naiz, Alejo Bilbao komandantearen konfiantzazko **pilotua**.
b) Agirre'tar Nikola hau, "Metxa" izenobez, Bizkaia itsasontziko konbaterako lemazain izana naiz, Alejo Bilbao komandantearen konfiantzazko **abiadore**.
c) Agirre'tar Nikola hau, "Metxa" izenobez, Bizkaia itsasontziko konbaterako lemazain izana naiz, Alejo Bilbao komandantearen konfiantzazko **hegazkinlari**.
11. a) Bizia ez da materiaren existentzia forma berezia baino; lege jakin batzuen arabera sortzen eta **deuseztatzen** dena.
b) Bizia ez da materiaren existentzia forma berezia baino; lege jakin batzuen arabera sortzen eta **deusezten** dena.
12. a) Foru Aldundiak aurten **abalatutako** hainbat kreditu eragiketetan galerak izan dira.
b) Foru Aldundiak aurten **abala emandako** hainbat kreditu eragiketetan galerak izan dira.
13. a) Etxe txiki eta zuriz pintatuak, txukun-txukun antolaturik, gustu oneko **dekoratzaileak** bertan kokatu izan balitu bezala, halakoxea zen San Francisco.
b) Etxe txiki eta zuriz pintatuak, txukun-txukun antolaturik, gustu oneko **dekoradoreak** bertan kokatu izan balitu bezala, halakoxea zen San Francisco.
14. a) Justizia ez dago, **derrigorrez**, adostasunean oinarrituta.
b) Justizia ez dago, **derrigorrean**, adostasunean oinarrituta.
c) Justizia ez dago, **nahitaez**, adostasunean oinarrituta.
15. a) Hortzak garbitzen ari da, xix-xix, eta ezpain txokotik dario **hortzetako pasta** zuria.
b) Hortzak garbitzen ari da, xix-xix, eta ezpain txokotik dario **hortzore** zuria.
16. a) Brasilgo **ihauterietan** bezala, Donostian eta Euskal Herriko beste herri batzuetan, desfileak antolatzen dira herriko kaleetan zehar.
b) Brasilgo **inauterietan** bezala, Donostian eta Euskal Herriko beste herri batzuetan, desfileak antolatzen dira herriko kaleetan zehar.
17. a) Gizon azeria eta trebea da, edozertarako gauza; baita giltzaz itxitako **ukuiluetara** sartzeko ere.
b) Gizon azeria eta trebea da, edozertarako gauza; baita giltzaz itxitako **ikuiluetara** sartzeko ere.
18. a) Lehen haurrak kalean edo edozein hormatan aritzen ziren **pelotan** eta **pelotari** on bihurtzen ziren euren kabuz ikasten, berariazko entrenamenduetan hasi aurretik.
b) Lehen haurrak kalean edo edozein hormatan aritzen ziren **pilotan** eta **pilotari** on bihurtzen ziren euren kabuz ikasten, berariazko entrenamenduetan hasi aurretik.
19. a) Lizardik, hizkuntza poetikoa landuaz, **ordurarte** euskal poesian ezagutzen ez zen mailara jaso zuen.
b) Lizardik, hizkuntza poetikoa landuaz, **ordura arte** euskal poesian ezagutzen ez zen mailara jaso zuen.
c) Lizardik, hizkuntza poetikoa landuaz, **ordu arte** euskal poesian ezagutzen ez zen mailara jaso zuen.
20. a) Dirudienez, **disziplina** militarra hezurretaraino sartu zaio eta bere bizitza pribatura eraman du.
b) Dirudienez, **diziplina** militarra hezurretaraino sartu zaio eta bere bizitza pribatura eraman du.

SOLUZIOAK

1 TESTUA OSATU

ALEGAZIOAK

Lehena.-

Semaforo bat errespetatu ez izana da salatzen zaidan arau haustea.

Bigarrena.-

Gaixo bat, larrialdian, ospitalera eraman dudalako ez dut semaforoa errespetatu. Gainera, ez zebilen batere trafikorik; beraz, ez dut ez trabarik egin, ez eta arriskurik sortu.

FROGA-AGIRIAK

Ospitalaren sarrera-agiria, non zehazten baita zein ordutan iritsi naizen.

2 ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU, EUSKALTZAINDIAK EMANDAKO ARAUAK ETA GOMENDIOAK KONTUAN HARTUTA:

1. a)
2. b)
3. Biak daude ondo.
4. Biak daude ondo.
5. c)
6. a)
7. b) eta c).
8. a) eta c)
9. a)
10. d)
11. b)
12. a)
13. b)
14. b) eta c)
15. a) eta c)

3 HIZTEGI BATUA

1. b
2. b
3. a
4. a baztertua, b onartua eta c hobetsia
5. b
6. c
7. a
8. b
9. a
10. a,c
11. b
12. b
13. a
14. b, c
15. a
16. b
17. a
18. b
19. b,c
20. b